

## Kutsadura jaistea

2007an espainiar erdiek baino gehiagok aire kutsatuagoa arnasten zuten legeak baimendutakoa baino.

Legediak komunitate autonomoak ekintza-planak gauzatzera behartzen ditu, kutsadura-mailak legezko mugen azpitik egonkortzearen. Hala ere, hiri gehienek ez dute neurri eragingarririk hartu, horrek gure osasunean dituen ondorio oso negatiboengatik ere.

Kontuan hartuta garraio pribatua dela kutsaduraren sorburu nagusia, ekintza-planak ondoko xedeoi begira egin behar litateke:

- ▶ Mugikortasun-premiak gutxitzen dituen garapen-eredua eta lurralde-antolakuntza bultzatzea.
- ▶ Errepideetako garraioari diru-laguntzak eman ordez, autoa hartzeko gogo kentzen duen kalitatezko garraio publiko batera bideratzea.
- ▶ Hirietan, oinez eta bizikletaz mugitzeko erraztasunak ematea.
- ▶ Aire-trafikoa murriztea, aireportu handiak aire-kutsaduraren sorburu garrantzitsuak baitira.
- ▶ Aire gehiago kutsatuko luketen industriak eraikitzeko baimenik ez ematea, hala nola zentral termikoak eta zementu-fabrikak. Orain daudenak teknologia garbiagoak erabiltzera behartzea.



[www.ecologistasenaccion.org](http://www.ecologistasenaccion.org)

**Andalucía:** Parque San Jerónimo, s/n, 41015 Sevilla Tel./Fax: 954903984  
andalucia@ecologistasenaccion.org

**Aragón:** C/ Cantín y Gamboa 26, 50002 Zaragoza Tel./Fax: 976398457  
aragon@ecologistasenaccion.org

**Asturies:** C/ San Ignacio 8 bajo, 33205 Xixón Tel: 985337618  
asturias@ecologistasenaccion.org

**Canarias:** Paseo de Chil 13, 35014 Las Palmas de Gran Canaria Tel: 928362233 -  
922315475 canarias@ecologistasenaccion.org

**Cantabria:** Apartado nº 2, 39080 Santander Tel: 942240217  
cantabria@ecologistasenaccion.org

**Castilla y León:** Apartado nº 533, 47080 Valladolid Tel: 983210970  
castillayleon@ecologistasenaccion.org

**Castilla-La Mancha:** Apartado nº 322, 19080 Guadalajara Tel: 659155339  
castillalamancha@ecologistasenaccion.org

**Catalunya:** Can Basté - Passeig. Fabra i Puig 274, 08031 Barcelona  
catalunya@ecologistesenaccio.org

**Ceuta:** C/ Isabel Cabral nº 2, ático, 51001 Ceuta ceuta@ecologistasenaccion.org

**Comunidad de Madrid:** C/ Marqués de Leganés 12, 28004 Madrid  
Tel: 915312389 Fax: 915312611 comunidaddemadrid@ecologistasenaccion.org

**Euskal Herria:** C/ Pelota 5, 48005 Bilbao Tel: 944790119  
euskalherria@ekologistakmarxan.org

**Extremadura:** C/ Vicente Navarro del Castillo bl.A ptal 14, 06800 Mérida  
Tel: 609681976 extremadura@ecologistasenaccion.org

**La Rioja:** C/ Carnicerías 2, 1º, 26001 Logroño Tel./Fax 941245114  
larioja@ecologistasenaccion.org

**Melilla:** C/ Colombia 17, 52002 Melilla Tel: 630198380  
melilla@ecologistasenaccion.org

**Navarra:** C/ San Marcial 25, 31500 Tudela  
Tel: 626679191 navarra@ecologistasenaccion.org

**País Valencià:** C/ Tabarca 12 entresol,  
03012 Alacant Tel: 965255270  
paisvalencia@ecologistesenaccio.org

**Región Murciana:** C/ José García  
Martínez 2, 30005 Murcia Tel: 968281532 -  
629850658 murcia@ecologistasenaccion.org

### Informazio gehiago:

airelimpio@ecologistasenaccion.org  
[www.ecologistasenaccion.org](http://www.ecologistasenaccion.org)



# Osasuna eta airearen kalitatea

Diru-laguntza:

**EKOLOGISTAK**  
marxan





## Airearen kalitatea

Gure hiri eta herrietako airearen kalitatea galtzen ari da, eta hori mehatxu larria bihurtu da gure osasunarentzat. Herritar gehienok urteko hainbat unetan kutsadura-maila altuak pairatzen ditugu. Aldirik kritikoenak neguan eta udan gertatzen dira, neguan, atmosfera egonkortzen duten antizikloi iraunkorrenatik, kutsatzaileen sakabanaketa galarazten baitute, eta udan, ozono troposferikoagatik, ugaria izaten baita.



Motordun ibilgailuen erabilera eskerga, etengabe hazten ari dena, arnasten dugun airearen kalitate-hondatzaile nagusia da. Toki jakin batzuetan beste eragile batzuek ere garrantzia dute, hala nola zentral termikoek, industriak...


## Osasuna eta airearen kalitatea

Urte batzuetatik hona egindako ikerketek erakusten dutenez, kutsadurak erlazioa du arnas gaixotasunen sorrerarekin eta larriagotzearekin, bai eta elkartutako beste gaixotasun batzuekin ere, baskularrekin eta minbiziekin kasu.

- ▶ Ingurumeneko eta Baserri-aldeko Ministroak esan duenez, kutsadura atmosferikoak urtero 16.000 pertsonen heriotza goiztiarra eragiten du Espainiar Estatuan, auto-istripuetan baino bost aldiz gehiago.
- ▶ Ikerketa batzuek erakutsi dutenez, erlazioa dago nitrogeno-dioxido mailaren eta umeen eztula eta sudur-kongestioaren artean.



- ▶ APHEA ikerketak eta beste batzuek erakutsi dute udan Europan erregistratzen den ozono troposferikoaren maila altuek arazo baskularrenatik heriotza-tasa handitzen dutela. Asma pairatzen duten pertsonak ere gehiago ingesatzen dira ospitaleetan.
- ▶ Osasunaren Munduko Erakundeak (OME) emandako azken norabideek erakusten dute kutsadura maila erlatiboki baxuek ere nabarmenki eragiten diotela osasunari.



Babesgabeenak izaten dira ukituak, hala nola umeak, zaharrak eta arnas gaixotasunak eta bihotzekoak pairatzen dituztenak. Kutsaduraren ondorioek piramide baten itxura dute: pertsona askok ukipen arinak dituzte; kalterik larrienak pertsona gutxiagok jasaten dituzte.

APHEISek ikerketa berri bat egin du Europako 26 hiritan,



eta horren ondorioz uste du,  $PM_{2,5}$ -ren kontzentrazioa  $10 \mu g/m^3$ -ra murriztuz gero, urtero 22.000 heriotza goiztiar ebitatu litezkeela, eta gainera bizitzeko itxaropena luzatu lezakeela, hilabete baten eta urte bi baino gehiagoren artean hain zuzen. Orobat kalkulatu dute  $PM_{2,5}$ -ren urteko kontzentrazioa  $3,5 \mu g/m^3$ -ra murriztuz gero, Madrilen bakarrik urtero 600 heriotza goiztiar ebitatu lezakeela. Horrek guztiak erakusten du, kutsadura mailetan gutxitze txikiak eginda ere, modu positiboan eta berehala eragiten zaiola osasun publikoari.

CAFE (*Clean Air for Europe*) delako europar programaren arabera, airearen kalitate txarrak eragindako kostu ekonomikoak askoz handiagoak dira egoera hobetzeko neurriek sortuko luketen kostua baino. 2000. urtean 25 estatudun Europan kutsadurak eragindako kostuak itzelak izan ziren, Barne Produktu Gordinaren (BPG) %3tik 9ra heldu baitziren.

## Kutsatzaileak eta osasunari nola eragiten dioten

Kutsatzaileak	Sorburuak	Eraginak
<b>Partikulak (<math>PM_{10}</math>)</b>	Motordun garraioa, ikatza eta fuel-oila erretzea, berogailuak.	Arnas sintoma askorekin erlazionatua. Aldi luzeko esposizioa bihotz eta biriketako arazoek eragindako heriotzen gehitzearekin lotzen da.
<b>Nitrogeno-dioxido (<math>NO_2</math>)</b>	Motordun garraioa.	Infekzioak ugaltzea erraztu dezake eta asma-erasoak gehitu.
<b>Ozono (<math>O_3</math>)</b>	Bigarren mailako kutsatzailea, nitrogeno-oxidotik eta beste konposatu batzuetatik sortua.	Begiak eta arnasbideak narritatzen ditu. Infekzioak errazten ditu. Bereziki sentiberak dira alergikoak, asmatikoak eta arnas gutxitasuna duten beste gaixo batzuk.
<b>konposatu organiko lurrunkorrek (KOL)</b>	Disolbatzaileen lurrunketa, gasolinaren banaketa, ibilgailuak eta ihes-hodiak	Bentzenoa da gehien aztertu dena (gasolinak 3%tik y 5era dauka). Kantzerigenoa da, leuzemia-eragilea.
<b>Sufre-dioxido (<math>SO_2</math>)</b>	Ikatza erretzea, diesel-ibilgailuak, berogailuak.	Arnas gaixotasunekin (bronkitis kronikoa) eta kardiobaskularrekin erlazionatua. Asma-erasoa gertatzeko aukerak gehitzen ditu.
<b>Karbono-monoxidoa (CO)</b>	Gasolinaz dabilzan motorrak	Kontzentrazio handietan hilgarria da. Kontzentrazio baxuetan, eragina izan dezake kontzentratzeko ahalmenean eta jokabideetan.